



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko ekainaren 21ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- Honako puntuen **berri eman da**: 1.1. Toki Ekintzako Planen berrikusketa; 1.2. Euskadiko Ekoeraginkortasunaren Astea 2012 eskualdean; 1.3. Udalsarea 21en 2012ko eranskinak; 1.4. Tak 21; 1.5. Eskualdeko Bulegoaren aurkezpena Aguraingo Koadrilan; 1.6. Esku-hartzea Euskadi Irratian; 1.7. Bilduren gonbidapena Mankomunitateei eta Toki Garapenerako Agentziei egingo zaien proposamen sozioekonomikoaren aurkezpena; 1.8. Egoera ekonomikoa.
- **Erabilitako arropa biltzeko zerbitzua**: erabilitako arropa eta bestelako etxe-objektu aprobatxagarriak berrerabiltzeko zerbitzu berriaren ezarpenaren eta komunikazio-kanpainaren berri eman da.
- **Isurpen fokuen inbentarioa**: lehiaketaren berri eman da. Uztaileko bileran lan-plana eta udalen beharrianak aurkeztuko dira.
- **ILPNeAren Laguntzak**: Oniritzia eman zaio biodibertsitatearen lerroan eskaera aurkezteari ondoko proiekturako: “Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko ibai eta errekaetako ertz degradatuak ekologikoki leheneratzea eta biodibertsitatea hobetzeko ekintzak egitea, honako udalerrietan: Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Urduña, Ugao-Miraballes, Zaratamo eta Zeberio”.
- **Berringurumena 2012-2013**: oniritzia eman zaio “Iraunkortasun irizpideetan oinarritutako Erosketa eta Kontratazioen Eskualdeko Zentrala” proiektua aurkezteari.
- **Hondakinen kudeaketa eskualdean**: honako ekintzak planteatu dira: 1) Dibulgazio eta kontzientziazio kanpaina; 2) Etxeko konpostajea; 3) “Hondakinen behatokia eskualdean”, bilketei, kostuei eta hobetzeko proposamenei buruzko urteko datu eta adierazleekin; 4) Gonbidapena hondakinen bilketako espezialistei, hausnarketarako barne-bilerara; 5) Eskualdeko Garbigune mistoak edo Garbigune industrialak handitzeko aukerak aztertzea; 6) Hondakinen prebentziorako astean parte hartzea, azaroaren 17tik 25era bitartean.
- **Eskolako Agenda 21i zuzendutako laguntza teknikorako lehiaketa**: datorren ikasturtean Eskolako Agenda 21 dinamizatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko lehiaketaren egoeraren berri eman da. Era berean, eskualdeko zentron egoeraren eta aurreikuspenen berri ere eman da. Batzordeak uztailean egingo duen bilera baino lehen pleguen proposamena bidaliko da, baliozkotzat jotzeko.
- **Mugikortasunaren Astea 2012**: oniritzia eman zaie ondoko ekintzei: parte-hartze foroa Zeberion; eskualde mailako ekintza edo foroa; aparkalekuak kudeatzeari buruz hausnartzeko barne-bilera. Interesgarritzat jo da Oinez busaren edo eskolako bidearen esperientzia.
- **Jasotako eskaintzak**: Jasotako hiru eskaintzaren berri eman da; eskaintzok udalei birbidaliko zaizkie, akta honekin batera.
- **Batzordearen hurrengo bilera**: uztailaren 19an (osteguna), 09:00etatik 11:00etara. Ordubeteko atal monografikoa ere egongo da, jatorri industrialeko Isurpen Fokuen Inbentarioa abiarazteko.